



BALIO PROPOSAMENA

Refabrics enpresan, kotoizko produktuak birziklatzen ditugu tela berriak sortzeko eta tela horiekin produktu berri bat sortzeko, mahai-zapi berriak. Gure produktua sortzeko, kotoia behar dugu hau gure herrian jarritako kontenedoreetatik lortuko dugu, jendeak erabiltzen ez duen algodoi produktuak han botako dituelako, gero gu produktuak garbituz, moztuz eta josiz, tela berri batean bihurtzen dugu.

Guk algodoiz egindako produktuak birziklatzea erabaki dugu gizarte kontsumista batean bizi garelako, jendeak 2 kilo arropa botatzen duelako urtero, arropa gehiena ez da erabilgarria eta ez da GKE tara iristen, zakarrontzira baizik. Hau izango da gure enpresaren sormenaren arrazoi nagusia. Beste enpreseetatik ezberdintzen gaituena ingurumena zaintzen dugula da, ehungintza merkatuan enpresa handiak ondo finkatuta daude eta zaila da lehiaketa egitea, baina gu bezeroei ingurumena zaintzeko aukera ematen diegu gure produktua erosten dutenean, arrazoi honekin lotuta ere berotze globala ekiditen laguntzen dugu. Tela berriak sortzeak kontaminazio asko sortzen duelako eta gure modura birziklatzeak kontaminazioa gutxitu egiten du.

Gure produkzioa arduratsua da, ez dugu masan produzitzen ondorioz sortzen ditugun produktu guztiak saltzen ditugu eta ez dago soberakinik

Gure enpresako desabantailak hauek dira; gure produkzioa mugatuta dago guk ez dugulako kontrolatzen jendeak botatzen duen telak eta beste aldetik aurreikusten ez ditugun gastuak arazo bat izan daitezke gure enpresako kapitala mugatua delako.

